

ESKOLA TXIKIEN FESTA

Bidania-Goiatz sorterrira itzuliko da jaia bihar 27 urteko ibilbidearen ostean

 **GIZARTEA** / oihana.llorente@gaur8.info

Biharkoa egun handia da Bidania-Goiatzen, Gipuzkoako Eskola Txikien Festa aldarrikapenari hasiera eman zion herrira itzuliko da-eta. Eskola txikiak bizirik eta osasuntsu mantentzearen aldeko eguna Gipuzkoan dauden 26 eskola txikietatik pasa ostean bueltatuko da Tolosaldeko udalerrira, eta, bertan, dena prest dute bigarrenez ospatzeko.

Gipuzkoako Eskola Txikien Festa 27 urteko ibilbidea du. 1988an Bidania-Goiatzek –Bidegoain izena zuen garai hartan herriak–, estreinatu zuen “Eskola txikiak bizirik, herri eta auzoak bizirik” lelopean egiten den jaialdia, eta, igandean, Gipuzkoako eskola txiki guztiak zeharkatu ostean, sorterrira itzuliko da.

Pozarren hartu dute hitzordua Bidania-Goiatzeko bizilagunek eta kirioak dantzan dituzte igandea noiz iritsiko zain. Haur eta gaztetxoak inoiz baino protagonistago izango direlakoan da Iban, GAUR8rekin aritu den antolatzailea. Nabarmendu duenez, umeen gozamina helburu, mimo handiz josi dute biharko egitaraua.

Festa gunea Txinkorta eskolaren inguruan kokatu dute; eskola da-eta, bidaniarren eta goiatarren iritziz, festaren eta herriaren bihotza. Tolosaldeko udalerririk beti izan du eskola, eta, herritarren ustez, hori da hain zuzen ere herria bizirik mantendu izanaren arrazoia. Egun, eskola gisa erabiltzen duten eraikina 2000. urtean eraiki zuten eta egunero 52 ikasle eta 10 irakasleri egiten die harrera.

Saioa Urdangarin Txinkorta eskolako zuzendaria da orain dela bi ikasturteetik. Ez da beti eskola txikietan aritu, baina urteen eta esperientziaren poderioz, eskola txikien onura eta ezaugarriak deskubritu ditu: «erabat euskaldunak dira, naturarekin harreman zuzena dute eta adin aniztasunean oinarritzen dira».

Txinkorta eskolak bost ikasge-la ditu gaur egun eta haietan adin ezberdinetako haurrak biltzen dira. Adin aniztasuna «benetan aberasgarria» da Urdangarinen begietara, elkarreragina eta lankidetzaz sustatzen dituela sinetsita baitago: «Txikiek handien ereduak dute, eta, helduak, aldiz, txikiekiko errespetuan hezten dira». Iban Txinkortako ikasle ohia da eta erabat ados dago zuzendariarekin; eskolan sortzen diren harreman horiek, gainera, eskola eremua gainditu eta luzerako izaten direla gaineratu du.

Zuzendariaren arabera, eskolako paretan artean sortzen den «etxe giroa» da eskola txikien balio preziazua; «familia harremana da irakasle, ikasle eta gurasoen artekoa, oso estua da, eta beste maila bateko konfiantza sortzen da era honetan», dio pozarren.

Urdangarin ez da Bidania-Goiatzeko eta harrituta dago Eskola Txikien Festa antolatzeko herrian topatu duten babesarekin. «Jende guzti-guztiak eman digu laguntza, eskolarekin hartu-emana izan edo ez. Izugarria

Aurten Eskola Txikien Festak Gure Esku Dagok antolatutako giza katearekin bat egiten duenez, nahi dutenek erabakitze eskubidearen aldeko argazkia ateratzeko aukera izango dute

Eskola txikien onura eta ezaugarriak argi ditu Txinkorta eskolako zuzendariak: «erabat euskaldunak dira, naturarekin harreman zuzena dute eta adin aniztasunean oinarritzen dira»

